



## EUSKO JAURLARITZAREN ETA FLANDRIAKO GOBERNUAREN

### ARTEKO

### ASMO ADIERAZPENA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAK, Eusko Jaurlaritzaren lehendakari den Iñigo Urkullu Renteria jaunak ordezkaturata,

FLANDRIAKO ERKIDEGOAK eta ESKUALDEAK, Flandriako Gobernuko ministro-presidentea den Geert Bourgeois jaunak ordezkaturata,

Hemendik aurrera, «parte-hartzaileek»,

Elkarrenganako konfiantza eta partekatzen dituzten askatasunaren, demokraziaren, justiziaren eta elkartasunaren balioak oinarri hartutako adiskidetasun- eta lankidetzaharremanak sendotu nahian,

### HAU ADIERAZTEN DUTE

Alde biko harremanak sendotzeko eta areagotzeko asmoa, parte-hartzaileen artean ahalik eta lankidetzarik handiena izatearren, eta hori guztia erdiesteko:

1. Dauden harremanak sendotu eta handituko dituzte, jardunbide egokien politikak trukaturako dituzte, lankidetzak aukera berriak aztertuko dituzte eta baterako proiektuak garatu eta bultzatuko dituzte honelako esparruetan, besteak beste:
  - Berrikuntza: Ikerketa, garapena eta berrikuntza, eta arreta berezia jarriko dute honako hauetan: industria eta teknologian, osasunaren zaintzan, gizarte-politiketan eta genero-berdintasuneko politiketan, sektore publikoaren kudeaketan, azpiegiturretan eta garraioan (portuak, trafikoa eta mugikortasuna).
  - Lan-merkatua eta politika ekonomikoa: lanbide-heziketa, produktibitate- eta lehiakortasun-politikak.
  - Ingurumena: bi parte-hartzaileek proiektuak eta jarduerak elkarrekin garatu ahal izango dituzte, bereziki ingurumenaren eta klimaren arloko politika eta legeriari buruzkoak, uren, materialen eta hondakinen tratamenduari buruzkoak zein ingurumenarekin eta energia berriztagarriekin bateragarriak diren teknologiei buruzkoak.
  - Osasuna: luzaroko zainketen arloko jardunbide onak trukaturako dituzte.
  - Kultura- eta sormen-sektoreak, funtsezko balio ekonomiko eta kultural gisa.

*(Handwritten signature and initials)*


2. Elkarrekiko lankidetzak sendotuko dute eta gizarte kulturantza eta tolerantzia bultzatuko dute. Zehazki, bake-erakuntzaren eta zientziak erakuntza horretan duen eginkizunaren arloko ekimenak sustatuko eta esperientziak trukatu dituzte, eta indarrak batuko dituzte bake- eta bizikidetzak-programetan elkarlana sustatzeko, betiere giza eskubideak errespetatzea eta bultzatzea oinarri hartuta.
3. Eskualdeek Europar betetzen duten eginkizuna sustatzeko ekimenen eta aliantzen esparruan –«Abangoardiako eskualdeen ekimena» esaterako– lankidetzak aztertu eta bultzatuko dute.

#### ETA HONAKO XEDAPEN INSTITUZIONAL HAUEK ERABAKITZEN DITUZTE

- I. Parte-hartzaileek onartzen dute agiri hau ez dagoela nazioarteko zuzenbidearen mende.
- II. Parte-hartzaileek jarraipen-batzorde bat sortzea erabakitzen dute, bi gobernuen kanpoko gaietarako zerbitzuek zuzenduta, eta batzorde horrek adierazpen honetan ezarritako ekintzak aldi behin ebaluatuko ditu. Batzordeak adierazpen honetan aipatu gabeko esparruetan elkarlanean jarduteko aukerak ere aztertuko ditu, orobat.
- III. Adierazpen honek idatziz eta bereizita onartu dituzten konpromiso finantzarioetara baino ez ditu parte-hartzaileak behartzen. Edozelan ere, parte-hartzaileek izan ditzaketen gastuak urteko aurrekontuaren mende egongo dira, betiere indarrean dagoen legeria beteta.
- IV. Adierazpenak bost urteko aplikazio-epea izango du hasieran, eta epe hori tazituki berrituko da iraupen bereko aldiatarako, betiere parte-hartzaile batek adierazpenaren aplikazioa eten nahi duela adierazi ezean; hori, dena den, aldia amaitu baino hiru hilabete lehenago adierazi beharko du.
- V. Asmoen adierazpen hau amaitzeak ez die eragingo bidean dauden ekimenei, ezta jada hitzartuta daudenei ere ez.


Hiru kopia sinatuko dituzte gaztelaniaz, euskaraz eta nederlanderaz, hirurek balio bera dutela, Bruselan, 2015eko ekainaren 1ean.

Eusko Jaurlaritzaren izenean



IÑIGO URKULLU

Flandriako Gobernuaren izenean



GEERT BOURGEOIS